

Kontratuen erregistroa 2017an

K O N T R A T A T U T A K O P E R T S O N A K

2017an 298.281 pertsona kontratatu dira, joan den urtean baino 13.784 gehiago. 2017an kontratatutako pertsona desberdinen urte arteko hazkundera 2016koa baino handiagoa izan da (+11.681), baina ez da 2015ekoa bezain handia izan (+24.642).

• S E X U A

2017an 158.531 gizon eta 139.750 emakume kontratatu dira. Kontratutako gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa izan da ostera. Krisi-garaian kolpatuak izan ziren jarduera maskulinotuz batzuk suspertu egin dira, eta horrek azal lezake kontratazioan gizonen alde izan den abantaila txiki hori. Aurreko urtearekin alderatuta, sexuaren arabera gizonen kontratazioa emakumezkoena baino gehixeago hazi da (+8.588 eta +5.196, hurrenez hurren).

• A D I N A

Kontratutako pertsonen batez besteko adina 36,32 da, eta altuxeagoa da gizonena (36,37) emakumeena baino (36,27). Kontratutako langile gazteenak, batez beste, lanbide teknikoak –goi-mailakoak nahiz laguntzakoak– eta zerbitzuen arlokoak dira; horien batez besteko adina 35 urtetik beherakoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza-lanetan kontratatutakoak dira; batez beste 40 urtetik gorakoak dira. Lanaldi partzialean kontratatutako pertsonak gainerakoak baino gazteagoak dira: horien batez besteko adina 35,44 urte da; 34,27 gizonena eta 36,07 urte emakumeena. Kontratu mugagabeaz kontratatutako multzoa aldi baterako kontratuaz kontratatutakoa baino zaharxeagoa da (37,21 urte eta 36,10 urte, hurrenez hurren).

• J A T O R R I A

2017an kontratatutako pertsonen % 14,1ek atzerriko nazionalitatea du; joan den urteko ehunekoa baino zertxobait altuagoa. Kontratutako pertsona atzerritarren %35ek Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, %16,3k Europako Erkidegokoa ez den Europako herrialde batekoa, %14,6k Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, %13k Europako Erkidegoko herrialde batekoa eta %10,5k Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batekoa eta %9,9k Asiakoa. Pertsona atzerritarrak bertakoak baino apur bat gazteagoak dira (36,18 eta 36,35 urte, hurrenez hurren). Kontratazio-kopuru esanguratsua duten atzerritarren artean, Latinoamerikatik eta Afrika iparraldetik heldutako pertsonak dira gazteenak (35,70 eta 35,78 urte, hurrenez hurren), eta Europako Erkidegotik heldutakoak zaharrenak (37,13 urte). Azken urtean, kontratatutako atzerritarren artean gehien hazi direnak Latinoamerikatik heldutakoak dira, eta gutxien, berriz, Europa Erkidegoko herrialde batetik heldutakoak.

• P R E S T A K U N T Z A - M A I L A

Kontratutako pertsonen 43,9k oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorrezko hezkuntza amaitu du–, %21k batxilergoko ikasketak egin ditu, %16,5k lanbide-heziketakoak, eta gainerako %17,8ak unibertsitate-ikasketak. Hala urteko erreferentzian, balore absolutuetan, gehien hazi den prestakuntza-profila oinarrizko ikasketak dituenarena da (+6.496), balore erlatiboetan, aldiz, unibertsitateko ikasketena (%6,39). Prestakuntza-maila apaleko pertsonen lan-egonkortasun txikiagoa izan ohi dute, eta, ondorioz, aktibitate handiagoa eragiten dute kontratuen erregistroan.

Kontratuen erregistroa 2017an

KONTRATUEN KOPURUAK

2017an 958.100 kontratazio izan dira EAEn, eta horietatik 73.328 (% 7,7) mugagabeak izan dira. Kontratu mugagabea izan duten gizonen ehunekoa (%8) emakumeena baino handixeagoa da (%7,3). Kontratazioa %3,4 hazi da aurreko urtearekiko.

• JARDUERA EKONOMIKOA

2017an gehien hazi diren jarduera ekonomikoak honako hauek izan dira: garraiokoak (9.299), artistikoak (4.488) eta ostalaritzakoak (2.853). Azken urte honetan gehien jaitsi direnetakoak lehen sektorekoak (-1.825) eta administratiboak (-314) izan dira.

• LANBIDEA

Azken urtean kontratu gehien eragin dituzten lanbide-profilak izan dira, lehenik, kalifikazio-maila bat duten zerbitzuen sektorekoak (% 31,5) eta, bigarrenik, kalifikatu gabeko lanpostuak (% 30,2). Bestalde, kontratazioa gehien hazi den lanbide-profilak hauek izan dira: industriako langile kalifikatuak (15.070), zerbitzuetako kalifikatutako langileak (6.814), zientzia-arloko teknikariak eta profesionalak (4.939) eta teknikariak eta laguntza emateko profesionalak (4.047). Sinatutako kontratuen kopuruan behera egin duten lanbide-profilak kualifikatu gabeko lanpostuenak (-3.213) eta lehen sektoreko lanpostuena izan da (-388).

• KONTRATAZIO-MOTA

Kontratuen % 7,7 mugagabea izan da; gizonen %8k eta emakumeen %7,3k izan dute kontratu-mota hori. Gizonen ehunekoa handiagoa da, 2016an gertatutakoaren antzera, baina aurtengo portzentajeak altuxeagoak dira. Esan ohi denaren kontra, kontratu mugagabeen kopurua ez da txikia, urtean zehar horrelako 73.328 kontratu sinatu baitira (azken urtean 7.798 gehiago izan dira). Arazoa, itxura batean, kontratu mugagabe horien egonkortasun-eza da; izan ere, horiek benetan egonkorak balira, 4 urtean aldi baterako kontratua duten 200.000 pertsona ingururen kontratuzko harremanak bermatzea lortuko litzateke, eta hori ez da gertatzen.


2017an sinatutako 5 kontratutik 2 baino gehixeago (%40,2) lanaldi partzialekoak dira; erdiak baino gehiago emakumeetan (%53,6) eta 4tik 1 baino gehiago gizonetan (%26,8). Kontratazio-mota horren arazo handiena da kontratu gehienak ez direla borondatezkoak, eta hori kontratuzko harremanaren kalitate eskasaren adierazgarri da. Kontratu mugagabeen %34,5 lanaldi partzialekoa da.

Lanaldi partzialeko kontratuen ehuneko handienak ageri dituzten jarduera ekonomikoak honako hauek dira: ostalaritza (%67,8), hezkuntza (%63,5), etxeetako jarduerak (%61,9), beste zerbitzu batzuk (%53,6) eta merkataritza (%53,2). Lanbide-profilei dagokionez, lanaldi partzialeko kontratazioen ehuneko handiena duena zerbitzuetako langileena da (%60,1), eta txikiena, berriz, lehen sektoreko langileena (%7,4) eta manufaktura-industrietako langile kalifikatuena (%8,7).


• JATORRIA

2017ko kontratuen %11,1 pertsona atzerritarrek sinatu dute; ehuneko hori joan den urtekoa baino handiagoa da (%10,1). Atzerritik heldutako pertsonak sinatutako kontratuetan, pertsona horien jatorri nagusia Latinoamerika da (%34,7), eta, ondoren, Afrikako iparraldea (%16,2) eta Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde bat (%15,6).


Kontratututako pertsonak jatorriaren arabera (%)



Kontratu guztiak jatorriaren arabera (%)



Jatorri eremua (%)



Grafiko hauek erakusten dute pertsona atzerritarren ehunekoak pertsona horien kontratuen guztizkoa baino handiagoa dela, eta horrek aditzera ematen du atzerritik heldutako pertsonen errotazioa bertan jaiotakoena baino handiagoa dela. Horren oinarrian egon litekeen faktore bat da pertsona atzerritarrek kalifikazio apalagoa eta lan-baldintza kaskarragoa lanpostuak izan ohi dituztela; enpresari batzuek gehiago fidelizatzen dituzten langile atzerritarrak, lan-baldintza okerrenak hobeto onartzen dituztelako. Beste faktore bat izan liteke pertsona atzerritarrek, kalifikazio apalagoa izanik, lan kaskarragoekin etsitzen dutela eta sarritan ez dituztela lan-aukera hobeak bilatzen.

• PRESTAKUNTZA - MAILA

Prestakuntza-mailaren arabera banandutako datuen analisiak erakusten du kontratu gehien-gehienak oinarrizko prestakuntza-maila duten pertsonen sinatu dituztela (%44,3). Batxilergoko ikasketak egin dituzten pertsonen kontratuen %21,9 sinatu dute -5 kontratutik 1 baino gehiago-, lanbide-heziketako ikasketak egin dituztenek %19,2, eta unibertsitate-ikasketak egin dituztenek %14,3.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoen artean, sinatutako kontratuen lanpostuen %19a Araban dago, %51,7a Bizkaian eta gainerako % 29,3a Gipuzkoan. Arabak bere biztanle-kopuruari erreparatuta es-

Kontratuen erregistroa 2017an

pero litekeena baino kontratazio-ehuneko handiagoa du, eta Gipuzkoak txikiagoa; Bizkaian, kontratazio-ehunekoa espero litekeenaren oso antzekoa da.

Aurten, kontratazioek gora egin dute hiru lurralde historikoetan: Araban %6,2 (10.632 kontratu gehiago), Gipuzkoan %4,5 (12.149 kontratu gehiago) eta Bizkaian %1,8 (8.720 kontratu gehiago).

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

2017an sinatutako 6 kontratutik bat baino gehixeago (% 18,7) aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, lau kontratutik ia 1 (%26,1) horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen %11,3 bakarrik egin du ABLE batek.


Lurralde historikoen artean alde handiak daude: kontratazio-mota hori gehien erabili den lurraldea Araba izan da (%22,6); Bizkaiko eta Gipuzkoako ehunekoak nabarmen apalagoak dira (%19,6 eta %14,5, hurrenez hurren).

ABLEen bitartez kontratu gehien egin diren lanbide-taldeak honako hauek dira: kalifikaziorik gabeko langileak (%52,9), industriako langileak (%14) eta kalifikazio-maila bat duten zerbitzuen sektorekoak (%12,8).

Industriako langileen ia herenak (%32,9) ABLE baten bitartez egiten dira. ABLEen bitartez kontratu-kopuru dezente egiten diren beste langile talde bat kualifikazioarik gabekoa da (% 32,7).

Aurreko urtearekin alderatura, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak %8,7 hazi dira.

ABLE bidezko kontratuak



Kontratuen erregistroa 2017an

		2017	2016	Aurreko urtearekiko	
				Saldoa	Bil. %
Mota	Mugagabea	73.328	65.530	7.798	11,90%
	Aldi baterakoa	884.772	861.069	23.703	2,75%
	Guztira	958.100	926.599	31.501	3,40%
	Mugagabeen %	7,7%	7,1%		
Sexua	Gizona	479.691	458.368	21.323	4,65%
	Emakumea	478.409	468.231	10.178	2,17%
	Guztira	958.100	926.599	31.501	3,40%
	Emakumeen %	49,9%	50,5%		
Mugaga-bea	Gizona	38.200	32.947	5.253	15,94%
	Emakumea	35.128	32.583	2.545	7,81%
	Guztira	73.328	65.530	7.798	11,90%
Aldi baterakoa	Gizona	441.491	425.421	16.070	3,78%
	Emakumea	443.281	435.648	7.633	1,75%
	Guztira	884.772	861.069	23.703	2,75%
Guztira	Gizona	479.691	458.368	21.323	4,65%
	Emakumea	478.409	468.231	10.178	2,17%
	Guztira	958.100	926.599	31.501	3,40%
Mugaga-been tasa	Gizona	8,0%	7,2%		
	Emakumea	7,3%	7,0%		
	Guztira	7,7%	7,1%		
Lanaldi partziala	Mugagabea	25.292	23.780	1.512	6,36%
	Aldi baterakoa	360.102	347.609	12.493	3,59%
	Beste batzuk	572.706	555.210	17.496	3,15%
	Guztira	958.100	926.599	31.501	3,40%
	LP tasa	40,2%	40,1%		
Lanaldi partziala	Gizona	128.738	122.785	5.953	4,85%
	Emakumea	256.656	248.604	8.052	3,24%
	Guztira	385.394	371.389	14.005	3,77%
	Gizonen tasa	26,8%	26,8%		
	Emakumeen tasa	53,6%	53,1%		
	Tasa guztira	40,2%	40,1%		
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	8.707	8.284	423	5,11%
	Beste batzuk	949.393	918.315	31.078	3,38%
	Guztira	958.100	926.599	31.501	3,40%
	Prestakuntzakoak (%)	0,9%	0,9%		
L. historikoa	Araba	182.413	171.781	10.632	6,19%
	Bizkaia	494.991	486.271	8.720	1,79%
	Gipuzkoa	280.696	268.547	12.149	4,52%
	EAE	958.100	926.599	31.501	3,40%
Gizonak	Lehen sektorea	15.204	16.899	-1.695	-10,03%
	Erauzketa-industriak	73	73	0	0,00%
	Manufaktura-industriak	113.063	112.328	735	0,65%
	Energia	83	86	-3	-3,49%
	Ura	4.556	4.521	35	0,77%
	Eraikuntza	33.026	32.217	809	2,51%
	Merkataritza	43.671	41.013	2.658	6,48%
	Garraioa	57.311	48.907	8.404	17,18%
	Ostalaritza	56.843	56.397	446	0,79%
	Informazioa eta komunikazioa	13.989	12.348	1.641	13,29%
	Finantzak eta aseguruak	1.604	1.605	-1	-0,06%
	Higiezin sektorea	455	468	-13	-2,78%
	Zientifikoak eta teknikoak	13.417	12.622	795	6,30%
	Administraziokoak	49.737	48.926	811	1,66%
	Administrazio publikoa	5.103	5.221	-118	-2,26%
	Hezkuntza	12.902	11.671	1.231	10,55%
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	24.092	22.409	1.683	7,51%
	Arte- eta jolas-jarduerak	24.829	21.852	2.977	13,62%

Kontratuen erregistroa 2017an

		2017	2016	Aurreko urtearekiko	
				Saldoa	Bil. %
	Beste zerbitzu batzuk	8.369	7.347	1.022	13,91%
	Etxeetako jarduerak	1.282	1.414	-132	-9,34%
	Lurralde kanpoko erakundeak	82	44	38	86,36%
	Guztira	479.691	458.368	21.323	4,65%
Emakumeak	Lehen sektorea	1.534	1.664	-130	-7,81%
	Erauzketa-industriak	10	27	-17	-62,96%
	Manufaktura-industriak	30.876	30.160	716	2,37%
	Energia	55	73	-18	-24,66%
	Ura	521	444	77	17,34%
	Eraikuntza	1.782	1.852	-70	-3,78%
	Merkataritza	65.161	63.082	2.079	3,30%
	Garraioa	11.575	10.680	895	8,38%
	Ostalaritza	93.404	90.997	2.407	2,65%
	Informazioa eta komunikazioa	9.481	8.773	708	8,07%
	Finantzak eta aseguruak	3.523	3.737	-214	-5,73%
	Higiezin sektorea	751	601	150	24,96%
	Zientifikoak eta teknikoak	17.899	17.742	157	0,88%
	Administraziokoak	67.495	68.620	-1.125	-1,64%
	Administrazio publikoa	7.136	7.226	-90	-1,25%
	Hezkuntza	30.999	29.439	1.560	5,30%
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	90.990	90.277	713	0,79%
	Arte- eta jolas-jarduerak	16.599	15.088	1.511	10,01%
	Beste zerbitzu batzuk	12.927	12.363	564	4,56%
	Etxeetako jarduerak	15.580	15.335	245	1,60%
Lurralde kanpoko erakundeak	111	51	60	117,65%	
Guztira	478.409	468.231	10.178	2,17%	
Guztira	Lehen sektorea	16.738	18.563	-1.825	-9,83%
	Erauzketa-industriak	83	100	-17	-17,00%
	Manufaktura-industriak	143.939	142.488	1.451	1,02%
	Energia	138	159	-21	-13,21%
	Ura	5.077	4.965	112	2,26%
	Eraikuntza	34.808	34.069	739	2,17%
	Merkataritza	108.832	104.095	4.737	4,55%
	Garraioa	68.886	59.587	9.299	15,61%
	Ostalaritza	150.247	147.394	2.853	1,94%
	Informazioa eta komunikazioa	23.470	21.121	2.349	11,12%
	Finantzak eta aseguruak	5.127	5.342	-215	-4,02%
	Higiezin sektorea	1.206	1.069	137	12,82%
	Zientifikoak eta teknikoak	31.316	30.364	952	3,14%
	Administraziokoak	117.232	117.546	-314	-0,27%
	Administrazio publikoa	12.239	12.447	-208	-1,67%
	Hezkuntza	43.901	41.110	2.791	6,79%
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	115.082	112.686	2.396	2,13%
	Arte- eta jolas-jarduerak	41.428	36.940	4.488	12,15%
	Beste zerbitzu batzuk	21.296	19.710	1.586	8,05%
	Etxeetako jarduerak	16.862	16.749	113	0,67%
Lurralde kanpoko erakundeak	193	95	98	103,16%	
Guztira	958.100	926.599	31.501	3,40%	
Gizonak	<>	37	41	-4	-9,76%
	Zuzendaritza	1.141	1.102	39	3,54%
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	32.385	30.018	2.367	7,89%
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	39.201	37.087	2.114	5,70%
	Administrazioko langileak	17.630	17.472	158	0,90%
	Zerbitzuetako kalifikatuak	94.792	89.948	4.844	5,39%
	Oinarrizko kalifikatuak	3.140	3.579	-439	-12,27%
Industriako kalifikatuak	69.813	55.402	14.411	26,01%	

Kontratuen erregistroa 2017an

		2017	2016	Aurreko urtearekiko	
				Saldoa	Bil. %
	Operadoreak	58.150	54.733	3.417	6,24%
	Kalifikatu gabeak	163.402	168.986	-5.584	-3,30%
	Guztira	479.691	458.368	21.323	4,65%
Emakumeak	<>	20	62	-42	-67,74%
	Zuzendaritza	591	565	26	4,60%
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	56.309	53.737	2.572	4,79%
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	36.037	34.104	1.933	5,67%
	Administrazioko langileak	36.528	35.872	656	1,83%
	Zerbitzuetako kalifikatuak	207.131	205.161	1.970	0,96%
	Oinarrizko kalifikatuak	278	227	51	22,47%
	Industriako kalifikatuak	6.376	5.717	659	11,53%
	Operadoreak	9.088	9.106	-18	-0,20%
	Kalifikatu gabeak	126.051	123.680	2.371	1,92%
	Guztira	478.409	468.231	10.178	2,17%
Guztira	<>	57	103	-46	-44,66%
	Zuzendaritza	1.732	1.667	65	3,90%
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	88.694	83.755	4.939	5,90%
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	75.238	71.191	4.047	5,68%
	Administrazioko langileak	54.158	53.344	814	1,53%
	Zerbitzuetako kalifikatuak	301.923	295.109	6.814	2,31%
	Oinarrizko kalifikatuak	3.418	3.806	-388	-10,19%
	Industriako kalifikatuak	76.189	61.119	15.070	24,66%
	Operadoreak	67.238	63.839	3.399	5,32%
	Kalifikatu gabeak	289.453	292.666	-3.213	-1,10%
	Guztira	958.100	926.599	31.501	3,40%
ABLE	Gizonak	125.325	114.779	10.546	9,19%
	Emakumeak	53.822	50.004	3.818	7,64%
	Guztira	179.147	164.783	14.364	8,72%
Pertsona-kopurua	Gizonak	158.531	149.943	8.588	5,73%
	Emakumeak	139.750	134.554	5.196	3,86%
	Guztira	298.281	284.497	13.784	4,85%
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	130.846	124.350	6.496	5,22%
	Batxilergoa	62.708	60.354	2.354	3,90%
	LHko ikasketak	49.318	47.382	1.936	4,09%
	Unibertsitate-ikasketak	52.986	49.804	3.182	6,39%
	Atzerritarra	41.921	39.309	2.612	6,64%
	Bertakoa	256.360	245.188	11.172	4,56%
	<>	50	51	-1	-1,96%
	Aberrigabea	76	37	39	105,41%
	Europako Erkidegoa	5.450	5.542	-92	-1,66%
	Erkidegokoa ez den Europa	6.854	6.352	502	7,90%
	Txina	1.162	1.255	-93	-7,41%
	Japonia	26	20	6	30,00%
	Asiako beste herrialde bat	2.935	2.805	130	4,63%
	Saharaz hegoaldeko Afrika	4.387	3.985	402	10,09%
	Afrikako iparralde	6.129	5.565	564	10,13%
	Ipar Amerika	155	117	38	32,48%
	Erdialdeko eta Hego Amerika	14.668	13.550	1.118	8,25%
Ozeania	29	30	-1	-3,33%	
Atzerritarrak guztira	41.921	39.309	2.612	6,64%	